

HAMAIIA KOPLA GURE HERRIARI

Doinua: banako

Altza delako gure zuhaitza
adierazi gure poza
Altzatar denok bat egin eta
jar diezaiogun bihotza

Oletako malda zoragarri
Pasaia duzu ispilu
Eutsi ongi zeure geroari
bihurtu ez dadin istilu

Larratxon ezin gara kabitu
guztioak dakigu ongi
Gune libreak nahi ditugula
eraikuntzarik ez noski ;

Herrerako erreka polita
izorratu ta galdua
Galde dezagun noren arduraz
Zein den madarikatua ?

Molinaoko arro gardena
eta Landarro mendia
aurre egiozu eta ez etsi
iraunaraziz bizia

Intxaurrondo zar eta berria
handiegia egin zaigu
Donostiak lapurtu baino lehen
Altzak salbatuko zaitu

Bidebietako dorre luzeak
frankismoaren aztarna
La Paz izena alboratuta
esan guere gara Altza

Martuteneko landa zabala
Altzako kume galdua
Noiz ikusiko zaitugu berri
Amarengana bildua

Auditx-Akular gure parke
lor dezagun egitea
Betirako galdu ez ditzagun
baserria eta ondarea

Donostiako udaletxean
alperrak dira nagusi
Gure bizitza baldintzatzea
lortuko ez dute, bada aski ;

Ikur berdea zure leihoan
Aldarrikapen bizia
Altzatarren duintasun argia
eta etorkizun berria

HAMAIKA KOPLA GURE HERRIARI

Doinua: banako

Altza delako gure zuhaitza
adierazi gure poza
Altzatar denok bat egin eta
jar diezaiogun bihotza

Oletako malda zoragarri
Pasaia duzu ispilu
Eutsi ongi zeure geroari
bihurtu ez dadin istilu

Larratxon ezin gara kabitu
guztiok dakigu ongi
Gune libreak nahi ditugula
eraikuntzarik ez noski ;

Herrerako erreka polita
izorratu ta galdua
Galde dezagun noren arduraz
Zein den madarikatua ?

Molinaoko arro gardena
eta Landarro mendia
aurre egiozu eta ez etsi
iraunaraziz bizia

Intxaurrondo zar eta berria
handiegia egin zaigu
Donostiak lapurtu baino lehen
Altzak salbatuko zaitu

Bidebietako dorre luzeak
frankismoaren aztarna
La Paz izena alboratuta
esan gu ere gara Altza

Martuteneko landa zabala
Altzako kume galdua
Noiz ikusiko zaitugu berriz
Amarengana bildua

Auditx-Akular gure parkea
lor dezagun egitea
Betirako galdu ez ditzagun
baserria eta ondarea
PA

Donostiako udaletxean
alperrak dira nagusi
Gure bizitza baldintzatzea
lortuko ez dute, bada aski ;

Ikur berdea zure leihoan
Aldarrikapen bizia
Altzatarren duintasun argia
eta etorkizun berria

ALTZA XXI
2007ko Otsailaren 1ean

1) Gure lurrari so egitera
Etorri gara Bakiora
Baina ez dugu notizi onik
Iparretik hego aldera

2) Araba zazpigarren alaba
zer daukazu afaltzeko
galipota lehen platera eta
Jundizko kea postreko

3) Agur mendiak agur larreak
lurra duzu zuk altxorra
ekaitz eta elurren gainerik
bizi bedi Xiberoa

4) Bizkaiak duen itsas ertzea
arriskuan dago berriz
lehen nuklearra orain txaletak
aitzakia dute beti

5) Atzo Lemoiz eta gaur Getxo
Bakio edo Irala
Diruaren morroi izatea
dute helburu bakarra

6) Lapurtarrek trena erraldoia
Nafarrek autobidea
Abiatzea lortuko dute
Baina inoiz ez heltzea

7) Deba, Urola eta Oria
Urumea, Bidasoa
ura ederrak eraman orde
hormigoiz josita doaz

8) Nafarroaren zabaltasuna
Tuteratik Itoitzera
Gendulaineko sarraskia da
benetako lur ikara

9) Abiadura handiko trena
Lur ta herriak suntsitu
Hiriburuak lotu ezean
Kapitalistak loditu

10) Eta horrenbeztez hortxe joan dira
Gure gaitza eta kezakak
Eguneroko lanari eutsi
Ekin gogor eta aurrera